



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko irailaren 29a

63 ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duena. «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa, Foru Diputazioak irradi emisora esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion. «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkeztua (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (5. or.).
- Ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeko buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (6. or.).
- Sintesi-drogen kontsumoaren gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Osasun Departamentuaren argitalpenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeko buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Tafallaldeko Udalen Elkarte hiri hondakin solidoak tratatu eta biltzeko inbertsioak egiteko aurreikuspenetatik kanpo uzteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeko buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Erregeordeen edo Kapitaniakoa deritzon Jauregiaren bereoneratze planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Eunateko ermitari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Elbarriei arreta egiten dien itunpeko zentroen jarraipenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Botulismo-kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Las Cañasko aintziraren zaintza zerbitzuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Tuterako Osasun Barrutiko osasun zentroak informatizatzeko eta kableatzeko plan pilotu bat egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Beste estatu batzuetatik datozen zainzurien osasun kontrolari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Castejondik Tuteraraino, N-232 errepideko trafikoaren intentsitateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Autopista Vasco-Aragonesa bidesariaren balizko murrizketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen presentziari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuko hainbat Batzorderen osaketa (33. or.).

H SAILA:**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- 230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (35. or.).

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duena

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatutakoaren babesean, Osoko Bilkuraren aurrean iza-pida dadin honako mozio hau aurkezten du:

Espainiako Gobernuak Ministroen Kontseiluak dekretu bat onetsi berri du Komunitate Autonomo-
ei frekuentzia-modulazioko (FM) 350 baimen berri emateko. Nafarroari 8 emisora berri egokitu zaizkio: bi Iruñean, eta bana Izaba, Larraun, Lesaka, Lizarra eta Tuteran. Kontzesio hori bat dator Foru Diputazioak 1994ko irailean egin zituen eskaerekin, hain zuzen ere, Nafarroari zortzi frekuentzia horiexek zeharbidezko kudeaketako edo merkataritzako emisoretarako frekuentzia-modulazioko uhin metrikoen soinu-zko Irrati-difusioko Plan Tekniko Nazionalean esleitzeko.

Jakina da emisoren azken kontzesioan bazter-tuta geratu zela Iruñerrian goitik behera euskaraz emititzen duen irrati bakarra, alegia Euskal Herria Irratia. Egitate hori ez zen baloratu, modu horretaz

baztertuz euskaraz bizi den populazioaren sektore gero eta garrantzitsuagoa, hain zuzen ere Iruñean eta Iruñerrian bizi dena. Azken horretan bizi dira gaur Nafarroako euskaldunen kopuru handiena, populazioari buruzko azken ikerlanari jarraituz.

Foru Diputazioaren gaurko Lehendakariak, Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria zelarrik, Parlamentuan 1994ko azaroaren 24an egin zen bilkura informatibo batean, Batzordearen aurrean bere konpromisoa azaldu zuen egin behar zen lehiaketaren baldintza-errietan euskarak balorazio garrantzitsua izan zezan eta Iruñeko kasuan lehiaketa bikoitza izan zedin arduratzeko. Zehazki, Foru Diputazioaren gaurko Lehendakariaren konpromisoa ondokoa izan zen hitzez hitz: Lehendakaritza Departamentuak aurreikusia du, behin Gobernu Zentralak Plan berria onesten duenean, Gobernuari proposatzea emisorak esleitzeko lehiaketaren deialdia egiteko. Lehiaketa honetako deialdian, Nafarroako eskualde euskalduneko emisoretan, hots, Larraungoan eta Lesakakoan, balorazio garrantzitsua emanen zaio euskarazko programazioari. Iruñeko kasuan, zehazki, balizko lehiaketa bikoitza egitea aurrekusi da, bat erderazko emisora baterako eta beste bat euskarazko baterako.

Une hauetan, Herrilan eta Telekomunikazio Departamentuan kontzesiorako lehiaketa publikoaren baldintzak lantzen ari dira, beraz, uste dugu garrantzitsua dela Parlamentuak adjudikazio horiei buruz daukan jarrera politikoa azaltzea. Horregatik, Osoko Bilkurari ondoko erabakiak hartzeko proposatzen diogu:

Lehenbizi.- Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioari eskatzen dio modulazio-frekuentziako zortzi emisora berri esleitzeko lehiaketa publikoan, balorazio garrantzitsua eman diezaiola euskararen presentziari ofizialki eskualde euskaldun edo misto deitutakoetan dauden emisorei.

Bigarren.- Nafarroako Parlamentuak Foru Diputazioari eskatzen dio Iruñean kokatutako emisoren kasuan, zehazki, lehiaketa bikoitza izan dadila, bat gaztelaniazko emisora baterako, azken horretan ere euskararen erabilera baloratuz, eta bestea euskarazko emisora baterako, beraz,

esklusiboki gordeta programazio osoa euskaraz ematen duten emisorentzat.

Iruñean, 1997ko irailaren 16an

Bozeramalea: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa, Foru Diputazioak irriti emisorak esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA», «IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» ETA «EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO» PARLAMENTARI TALDEEK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek Foru Diputazioak irriti emisorak esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Behean izenpetzen dugun Parlamentari Taldeok, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua ezarritakoarekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu dugu Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

PSOE, NDE eta EA alderdi politikoek, IUren laguntzarekin, 1995eko ekaineko gobernu-progra-

ma hartan erabaki zuten euskara bultzatzea helburu zutela, Komunitateko berezko bi hizkuntzeta-ko bat denez. Horretarako, besteak beste, euskarazko komunikabideak izatea bultzatu nahi zen, eta horien artean, euskarazko irratia legeztatzea.

Laster ekingo zaio Estatuak eman berri dituen irriti emisorari berriak esleitzeari. Nafarroari 8 egoitza zaizkio, Iruñea eta beste herri batzuetarako.

Nafarroan errealitate eleanitza dugunez, beharrezko da euskarari ere presentzia nahikoa eta zuzena ziurtatzea. Horrekin bat, Nafarroako Parlamentuak hurrengo erabakia hartzea proposatzen dugu:

Lehenbizi.- Foru Gobernuak, eskualde euskaldun edo mistoko emisorak esleitzerakoan, funtsezko balorazioa emango dio euskarazko programazioan duen presentziari.

Bigarren.- Iruñean, euskara hutsezko emisora baten kontzesioa ziurtatuko da, eta, era berean, hizkuntza horrek beste emisoraren programazioan duen presentzia baloratuko da.

Bozeramaleak: Reyes Cortaire Tirapu, Martín Landa Marco eta Begoña Errazti Esnal

F Saila:
GALDERAK

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 23an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Parlamentari jaunak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak ezarri zuen Udal Planaren figura hirigintza-planeamenduaren esparruan.

Aipatu planek udal dermio osorako sailkatzen dute lurra, lur-mota bakoitzarendako araubide juridiko ezberdina ezartzen dute eta udalderri bakoitzaren hirigintza-antolamendurako hartu den egitura orokorraren eustazpiak definitzen, orobat eustazpiok garatu eta burutzeko programak.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko lehen xedapen iragankorrak ezarri du 500 biztanletik gorako udalek, plan orokor edo arau subsidi-

diariorik gabekoek, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuari aurkeztu beharko diotela norbere udal plana, aipatu Foru Legeak indarra hartu eta hiru urte beteko epearen barruan gehenez ere, Departamentuak behin betiko onestea eman dezan.

Aipatu epea igarota dagoenez, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planen inguruko galdera hauek erantzutea eskatzen dut:

1. Plan orokorrik edo arau subsidiariorik gabeko 500 biztanletik gorako zenbat udalderri dago oraindik udal planik gabe edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu Departamentuari planik aurkeztu gabe?

2. Nafarroako zenbat udalek dute Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearekin bat datorren udal plana onetsita, behin betikoz?

3. Nafarroan plan orokorra edo arau subsidiarioak zituzten udaletatik zenbat ari dira Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen arabera udal plana egiten?

4. Nafarroako zenbat udalek dute plan orokorra, arau subsidiarioak edo udal plana behin betikoz onetsita?

5. Nafarroako zenbat udal dago oraindik plan orokor, arau subsidiario edo udal plana behin betikoz onetsi gabe?

Iruñean, 1997ko irailaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 23an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Parlamentari jaunak ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joan den irailaren 16ean ospatu zen ozono geruza bereonertzeko nazioarteko eguna. Gasgeruza horrek munduko bizitza babesten du eguzki argiaren ultramore izpietatik, eta gutxituz joan da arian-arian, lurmuturretako inguruetan batez ere, giza-jardunak eragindako gasen ondorioz, aipatu geruza deusezten baitute.

Orain dela hamar urte izenpetu zen Montrealgo protokoloa, zeinetan 116 estatuk, Espainia barne, hitz eman zuten ozono-geruzari kalte egiten dioten gaien ekoizpena murrizteko, zehazki, klorofluorokarbonatuak (CFC) ekoiztu eta erabiltzea. Jarduketa horien ondorioz, CFCen munduko ekoizpena %76 murriztu da.

Berriro bildu dira eta erdi eperako helburuak ezarri dituzte ozono-geruza babestu eta ez galtze-

ko, alegia, metil bromuroa eta karbono tetrakloruroa eta hidroklorofluorokarbonatuak (HCFC) kentzea azkartzea.

Metil bromuroa espektro handiko biozida da eta nekazaritzan erabiltzen da, batez ere Espainia dugu Europako bigarren kontsumitzailea, 4.000 tona erabiltzen baititu, diren autonomia erkidegoen artean neurri ezberdinean banatuak.

Isabel Tocino Ingurugiro Ministro andreak, aipatu egunean bertan eman zuen jakitera bost urteko programa abiatuko dela, lur-lantze jakin batzuen ordezkioak bilatzeko ikerketa eta garapen programa.

Jakin ahal izan dugunaren arabera, Nafarroan 91 tona metil bromuro erabiltzen dira urtero, barazkigintzan, batez ere.

Ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean erabiltzen direla eta, hurrengo galderei erantzuna ematea eskatzen dut:

1. Metil bromuroaren eta ozono-geruzari eusteko kaltegarritzat jotako beste gai batzuen erabilerara dela eta, zer daki Nafarroako Gobernuak dagokion Departamentuak? Zer jarraipen egiten du? Zer gai edo produktu dira? Zenbat erabiltzen da gure Komunitatean? Zertarako?

2. Nafarroako Gobernuak ba al du nolabaiteko partehartzerik Ingurugiro Ministerioak abiarazi duen programan, aipatu gaien ordezkioak ikertu eta garatzeko?

3. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du ozono-geruza bereonertzeko jardueraren bat egitea?

Iruñean, 1997ko irailaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Sintesi-drogen kontsumoaren gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak sintesi-drogen kontsumoaren gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José M^a Ezpeleta Martínez, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak sintesi-drogen inguruan egindako galderei buruz egindako galdera dela eta, Osasun Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

Sintesi-drogak deitutakoen fenomenoak duela 15 urte heroinaren inguruan bizi ginenaren oso antzekoa da (komunikabideetan haiei buruzko datuak agertzea, oso kezagarriak beti eta eten gabe gora ari direnak).

Heroina ereduaren ondorioz, herriaren sentipenei men eginez, Administrazioek erantzun ia bakarrik asistentziala eman zioten arazoari. Sendabide-eredu garrantzitsuena drogen kontsumoa ez gertatzeari zuzendutakoa izaten zen.

Zenbait urte geroago, eta inguruabar askoren ondorioz, abian jarri dira beste sendabide-eskuhartze batzuk, drogak kontsumitze hutsean baino drogak kontsumitzen duten pertsonen arazo orokorretan oinarritzen direnak (arriskua murrizteko eta kalteak gutxiagotzeko programak dira). Bide eta eredu hori, arlo horretan lan egiten duten langileen gehienek onartua, gogoeta eta ikerketa askoren ondorioa da eta bidea eman behar digu fenomeno berri bati buru egiteko zehaztasun zientifikoa erabil dezagun.

Fenomeno berriari buruz dauzkagun datuak ez digute modurik ematen haren zabalpena neurtzeko nahiz eta agerikoa izan kontsumo gero eta handiagoa izateko joera dagoela. Kontsumo hori, helduen ikuspuntutik, gure gazteak izugarri kalteztzen dituen arazo larria da eta, beraz, haien inguruetik kendu beharko litzatekeena. Baina arazo horretaz gazteek egiten duten balorazioari begiratzeko badiogu, erraz konturatuko gara errealitate

ezberdinak daudela fenomeno beraren inguruan. Gazteek, balizko arazo zabal bat dagoela konturatzen diren arren, ez dute uste kezkatzeko modukoa denik, oraingoz. Argi dago arazoan esku hartu behar dela eta maila ezberdinetan hartu ere; maila batean substantzi horien erabiltzaileei zuzendu behar da, kontsumitzen diren tokian eta haien eragileak erabiliz, eta beste maila batean gazte horien gurasoei eta pertsona helduei, orokorrean, zuzendu behar zaie, arazoa maila bereko plano ezberdinetan jartzen saiatzeko eta plano horiek elkarrekin bat etortzeko.

Arazoan esku hartzeko beharraz ohartuta, eta arazoari bere zabalean modu egokian ekin ahal izateko, berriazko ikerlan bat eginarazi genuen: populazio gaztearen alkoholaren eta beste drogen kontsumoari buruzko berriazko ikerlan koalitatiboa. Arazoan esku hartzeko abiapuntuak Parlamentari Talde Sozialistaren ordezkariak adierazitakoaren ildotik joan behar du. Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planaren Zuzendaritza Teknikotik orain arte egin den lana prebentzioaren bidetik joan da. Egindako galderari hitzez hitz erantzuten ez badio ere, esan dezakegu ildo beretik doala.

Drogen kontsumoaren ondorio negatiboen prebentzioa herritarrarengan hurbilen dauden egituretan artikulatu da (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, eskolak, GKEak eta gainerako egitura komunitarioak). Arazoaren ikuspegi orokorra da substantzia horiekin batera bizi ahal izatea ondorio traumatikorik gabe.

Oraindik drogen kontsumoan hasi ez diren pertsonen zuzendutako eskuhartzeetan bidezkoa da arazoari lehen prebentzioaren ikuspuntutik buru egitea, eta hori dela-eta, lehenitasuna eman zaio eskolari.

Horretarako prestakuntza eta berriazko materialak eman zaizkie irakasleei, eta material horiek Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan banatu dira. Gainera, Irakasleentzako Laguntza Zentroetan irakasleen eskura jarri dira lehen prebentzioan nahiz bigarren prebentzioan drogen erabilerarekin loturiko arazoekin lan egiteko zenbait material.

1996. urtearen bukaera aldean, mintegi bat egin zen sintesi-drogei buruz GKEentzat. Mintegi hartan drogen prebentzioari buruzko zenbait inguruabar landu ziren. Aurten beste mintegi bat egin da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileentzat.

Tekniko guztiak, bai Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoak bai Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planekoak, bat etortzeak prebentzioaren oinarriak oraindik kontsumitzen hasi ez direnen kontsumoa atzeratzean eta hasitakoaren arriskuak murriztean jartzeko orduan, argi erakusten du hasitako bidetik jarraitu behar dela zehaztuz nola, noiz eta nori, baina ahaztu gabe Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planaren iritziz portaerak direla arazoak sortzen dituztenak eta ez substantziak.

Heldu den udan oinarrizko gizarte zerbitzuetako teknikariek mintegi bat egin behar dugu ikerlan koalitatiboaren emaitzak aztertzeko. Mintegi

horretan, hemendik aurrera jarraitu beharreko plan bat eginen dugu guztion artean.

Komunikabideek garrantzi handiko papera daukate arazoa gizarteari azaltzeko, zalantzarik ez, eta interes handia daukagu topagune bat aurkitzeko, hain zuzen ere ahalegin guztiak bilduz Nafarroako gizarteari drogen erabilerak dakartzan sufrimenduak ebitatzearen behar den informazioa helarazteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko ekainaren 12an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana egiteari buruz M^a Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

1.- Emakumearen Osasun Laguntzako Plana egiterakoan, zer egitura-aldaketa aurreikusi dira aurreko egoerarekin konparatuz?

Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana garatzeko proposamen bat egitea ari da aztertzen Departamentu hau, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren emakume guztiek tokoginekologoa askatasunez hauta dezaten ahalbidetzeko asmoz.

Horretarako, hautu aske hori posible egingo duten arreta tokoginekologikorako unitateak eratu beharko dira, Nafarroa guztian banatuz.

2.- Nola antolatuko da laguntza ginekologikoa?

Aurrerago esandakoari jarraiki, aipaturiko helburuarekin eratu diren unitateak erabateko arreta tokoginekologikoaren bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoa den pertsonalaz osaturik egongo dira.

Edozein kasutan, beharrezkoak diren egitura-aldaketak egoki den lerruneko xedapen batek jasoko ditu. Horrelako xedapenik ez dago oraindik prest.

3.- FOSHEZendako aurreikusitako antolakuntza eta haien zereginak.

FOSHEZek beren gaurregungo zereginak mantenduko dituzte, eta, horietaz gain, esleiturik daukaten biztanleriari obstetrizia eta ginekologia alorreko arreta emateko beharrezkoak direnak ere berenganatuko dituzte, Osasun Departamentua orain lantzen ari den zirriborroen arabera.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 12a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

Osasun Departamentuaren argitalpenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Osasun Departamentuaren argitalpenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Osasun Departamentuaren argitalpenei buruz Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

Oinen zainketa diabetea duten pertsonengan (2. argitalpena).

Gripetik babes zaitez.

Erretzeari uztea. Lor dezakezu.

Demografia eta familia Nafarroa tradizionalan.

Diabete mellitus-a Lehen Laguntzan.

Nafarroako Osasun Diagnostikoa 1993. Nafarroako Osasun Planaren helburuen jarraipena.

Nafarroako Osasun Gastua 1993.

Osasun eta garapen pertsonalerako gida, nerabeekin lan egitekoa.

Osasun Gidak (Menopausia; Neska nerabeak; Emakume zaharrak; Familia eta erantzukizunbanaketa; Emakumearen aurkako indarkeria; Nor-

berak bere burua ezagutzeko emakumeentzako ikastaroa; Amatasuna/aitatasuna: haurdunaldia; Amatasuna/aitatasuna: erditzea eta erditze ondorena).

Lesio profesionalak Nafarroan 1991-1995. Aldizkakotasuna: urtebetekoa.

Lan-arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea (Legezko Testuak Bilduma, 15. zka.).

Lanerako ezgaitasuna kudeatzeko eskuliburua (3 argitalpen).

Farmazi prestazioa osasun-sistema nazionalan eta Nafarroako Foru Komunitatean (Txosten Teknikoak Bilduma, 13. zka.).

Haurren hortz-osasunerako laguntzaren programazioa, 1996.

Osasun Departamentuaren beka jaso duten ikerlanen laburpena, 1990 (Ikerketa Bilduma, 9. zka.).

Printzipio aktiboen hautaketa Lehen Laguntzan.

Haur eta nerabeentzako arreta (Osasun-protokoloak bilduma, 2. zka.).

Heldutasunean. Emakumeen osasuna sustatzeko gida hezitzailea.

Osasun Sistema Publikoaren Analak. Aldizkakotasuna: urtean hiru, barne hartuz, egotekotan, Eranskin zein Monografiak.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 12a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Air Track enpresan kapital publikoarekin parte hartzeari buruz Miguel Ángel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, Ramón Bultó Llevat jaunak, honako erantzun hau bidaltzen du:

1.- Zein da kapital publikoaren partehartze portzentuala Air Track enpresan (CAN edo beste enpresa publiko batzuk)?

Air Track enpresan ez du Nafarroako kapital publikoak parte hartzen; ez zuzenki, ezta sozietate publikoen edo CANen bitartez ere.

Hala ere, partehartzea egon badago Líneas Aéreas de Navarra-n; bertan, Sodena-k %10,4arekin parte hartzen du, eta CANek kapital sozialaren %7,5arekin.

2.- Nafarroako Gobernua hartzera al doa, enpresa publikoen bitartez, Air Track-en kapitalaren %50ekoa ere izateraino iritsi daitekeen partehartze bat? Zein epetan egitera doa? Zein partehartze-portzentaiarekin?

Nafarroako Gobernua ez doa Air Track-en kapitalean inongo portzentaiarekin parte hartzera; ez zuzenki, ezta zeharka ere, enpresa publikoen bitartez.

Era berean, Nafarroako Gobernuak ez du, ezta ere, Líneas Aéreas de Navarra-n kapital publikoaren partehartzea handiagotzeko asmorik.

Iruñea, 1997ko ekainaren 13a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat.

Tafallaldeko Udalen Elkartea hiri hondakin solidoak tratatu eta biltzeko inbertsioak egiteko aurreikuspenetatik kanpo uzteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Tafallaldeko Udalen Elkartea hiri hondakin solidoak tratatu eta biltzeko inbertsioak egiteko aurreikuspenetatik kanpo uzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Adolfo Araiz Flamarique, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak

eginiko eta joan den maiatzaren 12ko data duen galdera dela-eta, Toki Administrazioako Departamentuarengandik informazioa lortu ondoren, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- 1997-99 hirurterako Toki Azpiegiturei buruzko Hirurteko Planak hiri-hondakin solidoen tratamendu eta bilketarako inbertsio-aurreikuspenak sartu ditu, zergatik utzi da Tafallaldeko udalen elkartea hortik kanpo?

Toki Administrazioako Kontseilariaren martxoaren 4ko 27/1996 Foru Aginduaren bidez, zeina 1996ko martxoaren 25eko 37 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan baitzen, Toki Azpiegiturei buruzko 1997-99 Hirurtekorako

Plana lantzeko informazioa biltzeko hainbat neurri ezartzen da. Foru Agindu horretako 2.2 artikulua xedatzen duenez, Hiri Hondakin Solidoen arloko inbertsioetan Plan Zuzentzaileak ezartzen duena aplikatuko da.

Dena den, indarreango Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea 1996ko ekitaldian amaitutzat hartu ahal izan zela kontutan hartuz, hainbat toki-entitatek Azpiegiturei buruzko 1997-99 Hirurteko Planak aurreikusitako finantzaketa jaso zezaketen jarduketetarako eskaerak aurkeztu zituzten; Tafallaldeko Udalen Elkarteak, ordea, ez zuen inolako eskaerarik egin.

2.- Zergatik ez da dagokion deialdi publikoa egin hirurterako inbertsio-proposamenak aurkeztu ahal izateko aipatu gaiaren inguruan?

Hiri hondakin solidoen tratamendu eta bilketa arloko inbertsioak egoki den Plan Zuzentzaileak ezartzen duen moduan burutzen dira, eta arlo honetan inbertsio-proposamenak aurkezteko deialdi publiko bereziak burutzea ez da aurreikusten.

3.- Departamentuak ba al du aipatu udal elkar-teak datozen urteetarako dituen inbertsio-beharri-zanak jasotzeko asmorik?

Tafallaldeko eta gainontzeko Toki Entitateetako hiri-hondakin solidoen tratamendu- eta bilketa-arloko inbertsioa egoki den Plan Zuzentzaileak dituen aurreikuspenen ondorio izango da; hori horrela, Toki Administrazioako Departamentuak

aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera sartuko du hura Toki Azpiegiturei buruzko Hirurteko Planean.

4.- Hiri-hondakin solidoei buruzko Plan Zuzentzailea 1984koa denez, Departamentuak ba al du hurrengo hilabeteetan beste plan bat onetsi edo Parlamentuari onar dezan proposatzeko asmorik? Izan ere, gorabeherak, beharri-zanak, tratamendu-esperientziak asko aldatu dira...

Plan Zuzentzailea aldatzea aztertzen ari dira, berriki onetsiriko Ontzi eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legeak, Hondakinei buruzko oinarrizko legearen aurreproiektuak eta Hondakin Isurketari buruzko Zuzentarauaren proposamenak ezarrikerora egokitzeko. Onetsia izan dadin gutxi-gora behera urtebete igaro behar-ko dela aurreikusten da, hori baita Ontziei buruzko Legearen Erregelamendua indarrean sartzeko epe-muga, eta Lege horrek aurreikusten dituen kudeaketarako sistema integratuak funtzionatzen egoteko epea ere horixe da; ez da gomendatzen Plana idazten amaitzea azken hauek kontutan eduki gabe.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 11

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko kideak Ziordian, Altzaniako mendietan harrobiak ustiatzeari buruz idatziz erantzun diezaioten egingdako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Harrobiren bat ustiatzen ari al dira Altzaniako mendietan, Ziordiko udalean?

Zertako ari dira ustiaketa horretan? Nor da ustiategiaren sustatzailea? Noiztik ari dira harrobiak ustiatzen?

Lázaro Echevarría S.A. enpresa kare-harrizko arrobi bat ustiatzen ari da Ziordiko Aranbeltz alderdian. Ustiategiaren helburua da eraikuntzarako agregakinak produzitzea. Ustiategi hori 1973. urtean hasi zen.

2. Harrobi-ustiategi horrek ba al du Ingurugiro Departamentuaren eta dagokion toki entitatearen baimenik, hala hirigintzari buruzkoa, nola jarduera sailkatuen edo mendien gainekoa, dagokion legediaren arabera?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren artxiboetan dago enpresak 1977. urtean espediente bat izapidatu zuela jarduketa horretarako lizentzia lortzeko, garai hartan indarra zuen Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, eta Zerbitzu Teknikoen Batzorde Probintzialaren aldeko txostena izan zuen.

3. Ingurugiro eraginari buruzko deklarazioa egin al diote aipatu jarduerari? Ingurugiro eraginari buruzko deklarazioa egin baldin bazaio, zer eragin kaltegarri antzeman da ingurugiroarekiko eta zer neurri zuzentzaile ezarri da?

Une honetan ustiategiak proiektu bat aurkeztu du ustiategia zabaltzeko, horretarako erantsiz ingurugiro-eraginari buruzko ikerlan bat. Ingurugiro-eragina ebaluatzeko prozedura burutzen ari da orain, baina oraingoz ez da jakitera eman derrigorrezkoa den Eraginaren Adierazpena.

4. Ingurugiro eraginari buruzko deklaraziorik egin ez bada, zergatik ez da izapide hori egin eta zer neurri zuzentzaile erabaki dira ingurugiroarekiko eragina gutxitzeko?

Lehenbiziko lizentzia 1977. urtean izapidatu zen, eta une haietan ez zen ingurugiro-eraginaren adierazpenik eskatu.

Esan bezala, jardueraren zabaltzea bera da aztertzen ari dena, ingurugiroan duen eragina ebaluatzeko.

5. Zer balio natural azpimarra daiteke Altzaniako mendietan? Harrobi-ustiategiak eragiten al die balio ekologiko handiko guneei, berezko basoei edota hegazti harrapariak gordetzen diren tokiei?

Biogeografiari dagokionez Altzania Mendia sektore kantabriar-euskaldunean (nafar-arabar azpisektorea) kokatuta dago, eta Probintzia Kantabriar-Atlantikoaren atal bat da, Eskualde Euoriberiarrean.

Harrobiak eta haren balizko zabaltzeak ukituko duen landaredia azaltzeko ondoko alderdiak nabarmen daitezke: goiko alderdia, oraingo ustiategiaren aurreko aldeetatik gora; amilburuen alderdi bertikala; instalazioetako beheko alderdia eta sarbidearen alderdia.

Goiko alderdia hein batean pagadi batek esaltalia dago, soiletan eta orlan elordia azaltzen da eta tarteka-marteka hortz-soroak agertzen dira. Aipatu pagadiak, bai bere landareengatik bai bere izakera ekologikoagatik, Epipaktido helleborines-Fagetum sylvaticae aceretosum campestris motakoa da.

Amilburuen alderdi bertikalean ia ezinezkoa da zoru garatzea. Noizean behin, halako larre xerofitiko bat sortzen da pitzaduretan hazten den harrietako landareekin batera.

Instalazioetako beheko alderdian zoru heterogeneoagoak daude, mota desberdinetako landare multzoekin. Gizakiak eta aziendek gehiago urratu dituzten aldeak dira. Hariztien, elordien, otadien, otabera sasien, larre eta belardien ondarrak antzeman daitezke.

Sarbidearen alderdia aipatu egitura horien gainean dago. Lehenbiziko tartean, Errekalde erreka-aren ondoan, haltzadi bat dago, Hyperico androsaneni-Alnetum glutinosae elkarketaren ondorioz.

Amilburuetan eta haien ondoko aldeetan dau den hegaztien artetik ondokoak nabarmen daitezke: belabeltza (*Corvus corone*), zapelatz arrunta (*Buteo buteo*), garrapoa (*Sitta europaea*), har-kaitz-txolarrea (*Petronia petronia*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*), miru beltza (*Milvus migrans*).

Hariztietako ondarratan ondokoak aurki daitezke: gailupa (*Pirrhula pirrhula*), txonta (*fringilla coelebs*), kaskabeltz handia (*parus major*). Erreken inguruan ondokoak daude: Txepetxa (*Troglodytes troglodytes*), buztanluzeak (*Regalos caudatus*). Ondoko ornodunak ere aurki daitezke: ur-igela

arrunta (*Rana ridibunda*), baso-igel gorria (*Rana temporaria*), apo arrunta (*Bufo bufo*), apo lasterkaria (*Bufo calamita*), musker berdea (*Lacerta viridis*), horma-sugandila (*Lacerta muralis*), arrainak eta zenbait ugaztun. Habitataren aldaketak modu ezberdinean ukitzen ditu espezieak: batzuek aldutako ingurunea kolonizatzen dute ageriko kalterik gabe, beste batzuek, berriz, alde egin behar izaten dute.

6. Altzaniako mendiek ba al dute balio naturalik, Nafarroako basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko Foru Legeak edota Nafarroako naturguneei buruzkoak babesten dituenik, edo basa hegaztiak babesteari buruzko apirilaren 2ko 79/409 Jarraibideak edota berezko habitatak babesteari buruzko maiatzaren 21eko 92/43 Jarraibideak euren baitan hartzen dutenik? Harrobi-ustiategiak ukitzen al ditu aipatu balio naturalak?

Altzania Mendiak ez du Basa Fauna eta haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko Foru Legearen nahiz Nafarroko Naturguneen Legearen ondorioz eratorritako araubide berezirik.

7. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Altzaniako mendiak babesteko figura bereziren bat, edota naturgune edo faunaren habitat deklaratzeari, onura publikoko menditzat jotzeaz gain? Zein aplikatuko du eta zer epetan?

8. Nafarroako Gobernuak naturguneei buruzko zer araubide juridiko jotzen du egokitzen aipatu mendiak gerora begira babesteko?

Oraingoan, Nafarroako Gobernuak ez du gune hori berariazko babeseko inongo figuraren bidez babesteko asmorik. Mazizo osoari dagokionez, balio publikotzat hartzea, berariazko inguruabarrak aintzat hartzen dituen berezitasunekin, tresna baliagarria eta egokia da babes horretarako.

9. Nafarroako Gobernuak uste al du Altzaniako mendietako harrobi-ustietak ingurugiro-legedia urratzen duela, salatu izan den bezala? Zergatik?

Harrobiak ustiatzeak zenbait ingurugiro-eratan ekartzen ditu berekin, hein handi batean ingurugiro-eraginaren ikerlan bat eginez eta haren zehaztapenak betez eta bereoneratzeko plan garatuak murriztu beharko liratekeenak, kasu honetan egiten ari den bezala.

10. Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat burutu al du han bertan, arau-hauste edo lege kontrarik dagoela egiaztatu ahal izateko?

Kasuan kasuko jarduera-lizentzia duten jarduerak noizean behin ikuskatzen dira, beti ere Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiten duen zainketa planaren barrenean eta bere esku dituen giza-baliabideen arabera.

11. Zer neurri zehatz hartu du Nafarroako Gobernuak ingurugiro-legedia Altzaniako mendietako harrobi-ustiategietatik begiratzeko, edota, legeria hautsi egin bada, bereoneratzeko?

Ingurugiroaren aurkako arau-hausterik izan denik egiaztatu ez denez, ez da inongo neurririk hartu. Dena den, enpresa ustiatzaileak jarduera zabaltzeko egin duen eskaerari erantzunez, kasuan kasuko ingurugiro-eraginari buruzko ebaluazioa izanen da ukitutako ekosistemak eta halakorik balitz haiek murrizteko neurri zuzentzaileak uztartzeko arazoei aurre egin beharko diona.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokotan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Erregeordeen edo Kapitaniakoa deritzon Jauregiaren bereoneratze planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Erregeordeen edo Kapitaniakoa deritzon Jauregiaren bereoneratze planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak erai-kin historikoak bereoneratu eta instalazio moderno bezala erabiltzeko interesari buruz idatziz eran-

tzun diezaioetan egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1. Proiektua Rafael Moneo jaunaren bulegoan dago, idazteko fasean.

2. Lanak burutzeko proiektua idazten ari da.

3. Espero dugu proiektua 1997ko ekitaldian entregatuko dela; gero hura aztertu eta onesteari ekinen zaio. 1997ko ekitaldian lanak esleitzeko lehiaketa NAOn argitaratzeari ekin ahal izanen da. Argitalpena 1998ko hasiera aldean egingen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 13an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

Eunateko ermitari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Eunateko ermitari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak Eunate ermitaren egoerari buruzko zenbait inguruabarri buruz idatziz erantzun diezaioeten egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1. Bai, ezaguna da egoera hori.

2. Ez da aurreikusi 1997. urtean inongo inbertsiorik egitea, izan ere monumentua erabat sendotuta dagoelako eta kontserbazio egoera ezin hobean. Horrenbestez, Eunate ez dago deus zaharberritu behar denik.

3. Galderaren tonua ez da bidezkoa, Nafarroako Gobernua ez delako eraikinaren titularra. Galdera hori Artzapezpikuari egin beharko zenion, bera delako ondasun higiezin horren titularra, eta hark Vianako Printzea Erakundeari aholku eta laguntza eskatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 12an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

Elbarriei arreta egiten dien itunpeko zentroen jarraipenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak elbarriei arreta egiten dien itunpeko zentroen jarraipenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Elbarriei arreta egiten dieten itunpeko zentroen jarraipenari buruz Reyes Cortaire Tirapu, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik elbarriei arreta egiten dieten itunpeko zentroei jarraipen estua egiteko?

Nafarroako Gobernuak, itunpeko zentroen jarraipen estua egiteko asmo hutsetik harantz, egin ere egiten ari da jadanik jarraipen hori orain dela hainbat hilabetez geroztik, Gizarte Ongizateko Departamentuak dituen kontrol-elementuen bidez. Batetik, Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Atalak uneoroko jarraipen bat (ez bakarrik itunpeko zentroena) egiten du, etenik gabe, itun bakoitzak ustiapen-proiektu teknikoaren arabera bete behar zituen baldintzak betetzen direla egiaztatze-ko. Bestetik, Afera Ekonomikoen Atalaren bitartez, itun bakoitzaren jarraipen ekonomikoa egiten da. Azkenik, Departamentuko Ikuskatzailatza Atalak, bere programaren barnean, itunpeko zentroen ikuskatzailatza-lan egokiak burutzen ditu.

2.- Nola aurreikusi du Nafarroako Gobernuak aipatu jarraipena egitea?

Gure ustez, erantzuna aurreko galderan emana dago, baina, erantzuna errepikatuz, jarraipen hori honako atal hauek egiten dute: Ezgaitasunak Dituzten Pertsonenak, Afera Ekonomikoenak eta Ikuskatzailatza-lan, programatuak zein ausazkoak diren ekintzen bidez.

3.- Nafarroako Gobernuak gauzatuko al ditu Kontuen Ganbarak itunei buruz emandako gomendioak?

Nafarroako Gobernuak, Kontuen Ganbarak antzemandako problemei irtenbidea bilatzeko eginiko esleipenetan, jadanik gauzatu ditu Kontuen Ganbarak bere txostenean itunei buruz emandako gomendiorik gehienak.

Profesionalki prestakuntza hobea duten langileak hartzeaz gain, itun bakoitzaren baldintzetan funtsezko aldaketak egin dira, Kontuen Ganbarak agerian utzi dituen egintzak ekiditeko asmoz. Besteak beste, honako aldaketa hauek egin dira:

- Esperientzia frogatu beharra.
- 10.000.000 pezetako gutxieneko kapitala edo 50.000.000 pezetako arrisku profesionaletarako kalteordain-asegurua dutela frogatu beharra.
- Itunaren urtebeteko iraupena.
- Esleipen-prezioaren %8ko fidantza.
- Enpresarien titulazio akademiko eta profesionalak, hala nola helbidea, frogatzea .
- Plantilako langileei buruzko obligazioak betetzaren ziurtagiriak igortzea.
- Kontabilitate Plan Orokorren araberrako urteroko kontuak.
- Ustiapen Kontuaren eta bere bilakaera eta aldaketaren oroit-idazki xehekatua, eta ondare-eta finantza-egoera azaltzea.
- Langileen eta azpikontraturiko zerbitzuen ratioei buruzko informazioa.
- Lanera ez agertzeari buruzko urteroko indizeak.
- Kontu-ikuskapen profesional eta independente batean eginiko txostena.
- Inbentarioko alta eta baje zerrenda.
- Galdaturiko fondo berekiak mantentzeko eta gutxienez irabazien %20ko erreserba-fondo bat eratzeko obligazioa.

4.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du oztopo arkitektonikoak kentzeko politika irmoa gauzatzea?

Badago Nafarroan araudi berezi bat, honakoa duena helburu: edonolako minusbalotasun organiko zein istripu baten ondoriozko bat jasaten

duten pertsonen gizarteko ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea eta erabilera erraztea, euren mugikortasun normala eragotzi edo zailtzen duten oztopo fisiko eta sensorialen agerpena ekiditea eta dauden oztopoen deuseztapena sustatzea.

5.- Nafarroako Gobernuak nola aurreikusi du elbarriak lan-arloan txertatzeko laguntza handiagoa ematea?

Elbarriak lan-arloan txertatzea legegintzaldiko oinarrizko helburuetako bat da, eta burutzen ari diren neurrien artean baten bat aipa genezake:

Departamentu arteko koordinazioa (batez ere Lan Departamentua eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren artean).

Lan Departamentuak eskumenak dauzka enplegurako zentro bereziak arautu eta finantzatzeari dagokionez; hauek, Gizarte Ongizatearen Departamentuak finantzatu eta arautzen dituen zentro okupazionalekin batera, minusbaliotasunak dituzten pertsonen lan-jardueraren oinarrizko euskarria osatzen dute. Nafarroako Gobernuaren helburuak, ordea, enplegurako zentro berezi eta zentro okupazional baliabideez harantzago doaz: jadanik martxan dagoen hainbat proiektuekin (unitate okupazional bereziak kasu) lan-jarduerako hutsuneak bete nahi dizkie, kasu honetan, jokaera-problematika gehituta daukaten pertsona minusbaliatuei, eta, aldi berean, enpresa normali-

zatuetan hainbat laguntza-neurriekin lan-jarduera burutu dezaketen pertsona minusbaliatuak integartzeko asmoz Lan Departamentuak, Tasubinsak eta zenbait enpresa pribatuk sinaturiko hitzarmen batzuk abian daude jadanik.

Horrela, bada, minusbaliotasun handiagoa duten pertsonentzako unitate okupazional bereziek eta ukipen-maila txikiagoa daukaten pertsonak enpresa normalizatueta txertatzeko neurriek baliabide tradizionalak (enplegurako zentro berezia eta zentro okupazionala) sendotu egiten dituzte.

Azkenik, aipatu beharra dago Nafarroako Gobernuak (zehazki, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak) lanean diharduela ALPErekin (Poliomielitis Elkarte) Turismoa denontzat izeneko Europako ekimen bat (Horizon III Proiektua) aurrera eramateko. Horren xedeak, turismoan dauden oztopoak kentzeaz gain, egokituriko ibilbide turistikoak sortzea, oztoporik gabeko Turismo Baliabideen errolda bat prestatzea eta minusbaliotasunak dituzten pertsonak turismo-industria osoan txertatzea dira.

Egoki diren ondorioetarako bidaltzen dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 10a

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda.

Botulismo-kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak botulismo-kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak botulismo kasuei, Perutik ekarritako zainzurien osasun-baldintzei eta gure Komunitatean izan duten eraginari buruz egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Perutik ekarritako zainzuri-kontserbak kontsumitzeak sortutako botulismo kasu batzuk agertu zirenean, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren jakinarazpen bat jaso genuen esanez, kalte horiek

sortutako produktua Espainiako industrietan nola banatu zen ikusi ondoren, produktu hori ez zela Nafarroan banatu; horregatik ez zen arreta-dei berezirik zabaldu behar izan. Dena den, kontuan hartuta Nafarroan Peruko inportazio gehienak dituen industria COPEXA dela, Osasun Publikoaren Institutuak enpresa horri zerbait erositako Nafarroako industria guztiak ikuskatu zituen. Lote-etatik lagin batzuk hartu ziren kautelazko neurri bezala, eta izakinak geldiarazi ziren. 6 izan ziren ukitutako industriak, eta, beraz, 6 ikuskatutakoak; 22 lagin hartu ziren beste hainbeste fabrikazio loteri zegozkienak.

Gero, Osasun eta Kontsumo Ministerioak Nafarroako Gobernuari jakinarazi zion COPEXAK egindako produktuak ez zeudela botulismoak ukituta. Berri horrek haien geldiarazpena deuseztea ekarri zuen ondorio; hala ere, analisiak egiten jarraitu da. Gaur egun arte ez da inongo irregular-tasunik antzeman.

Datu ofiziosoen arabera, 1996. urtean Nafarroako enpresek 14.306.975 kg. zainzuri inportatu zituzten Perutik. Datu hori nahasgarria izan daiteke, izan ere badirelako Espainiako enpresak Perutik zainzuriak inportatu eta gero zainzuri horiek Nafarroako enpresei saltzen dizkietenak, eta, beste aldetik, Nafarroako enpresa inportatzaileek ere Foru Komunitateaz kanpoko enpresei saltzen dizkietelako zainzuriak.

1996. urtean 11.900.000 kg. zainzuri merkatu-ratu ziren, Departamentu honetako datuen arabera.

3. Hirugarren herrietatik egiten diren inportazioak EBeko mugetan zehar egiten dira, behin onartu ondoren produktu horiek zirkulazio askea dutela EBeko kideentzat. Kontrola herri inportatzailearen Kanpoko Osasuneko arduradunen erantzukizuna da.

Inportazioak industrien edo agente baimendu-
duen bidez egiten dira. Horretarako kasuan kasu-
ko baimena lortu behar dute.

Nafarroan, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, Bilbo edo Noaingo aduanen bitartez egindako inportazioen jakinarazpenak jasotzen dira, baldin eta produktuak pertsonen kontsumorako onargarri deklaratu eta etiketatu behar badira, hain zuzen ere jarduera hori kontrolatu ahal izateko edo, bestela, akatsak direla-eta edo kasuan kasuko azterketa, analisisen emaitza eta abar egin gabe dituztelako ikuskatu behar direnean. Gero, inguruabarren arabera, beti ere, Osasun eta Kontsumoaren Ministeriotik jasotako aginduen arabera jardunen da.

4. Gortetik Harremanetarako eta Gobernuaren Idazkaritzaren Ministerioak Elikagaiak Etiketatutako, Aurkeztu eta haien Publizitatea egiteko Arau Orokorra onesteko eman zuen martxoaren 6ko 212/92 Errege Dekretua dago, etiketei dagokienez, indarra duen legeriaren buruan. 15. artikuluan ondokoa dio: Europako Batasuneko Estatu Kideetako produktuek edo haietatik etorritakoek nongoak diren edo nondik heldu diren agertu beharko dute, hori ez agertzeak kontsumitzaileari nahasbidea ekartzen badio elikagaia benetan nongoa den edo nondik heldu den jakiteko. EBekoak ez diren gainerako herrietako produktuek beti azaldu beharko dute nongoak diren edo nondik heldu diren, Espainian aplikatu daitezkeen nazioarteko itun edo hitzarmenetan gai horri buruz xedatutakoa ezertan kaltetu gabe. Hori dela eta, badirudi nahikoa dela arau hori aplikatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko ekainaren 16an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro.

Ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas jaunak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak ur-hegaztiak ehizatzeke aldia luzatzeko baimenari eta horrek gure Komunitateko hezegunetan izango duen eraginari buruz idatziz erantzun diezaiotzen egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Itundu al du Ingurugiro-Departamentuak Nafarroako organizazio edo ehiztari-elkarteren batekin ur-hegaztien ehizaldiaren luzapena 1996-1997 denboraldiarekiko? Luzapen hori aurrikusia al du? Ekainaren 14ko 560/1996 Foru Agindua, 96-97 denboraldirako ehiza-debekaldiei buruzkoa, ezertan aldatzea beharrezkotzat jotzen al du?

Ehizaldi bakoitzeko debekaldiei buruzko Agindua Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egindako proposamen batetik abiatuta egiten da. Proposamen hori Ehizari buruzko Batzorde Aholkuemailean eztabaidatzen da eta gero Ingurugiro Kontseiluan. Horregatik, debekaldiei buruzko Aginduak aintzat hartzen du ukitutako herritarren sektore guztien iritzia. Horixe da debekaldiei buruzko Aginduak burutzeko erabiltzen den bidea, eta aurten, aurreko urteetan bezala, gisa berean egin da, aurretiko konpromisorik batere hartu gabe ez ehiztarien erakunde edo elkarteekin ez eta bestelakoekin ere. Debekaldiei buruzko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren ekainaren 14ko 560/1997 Foru Aginduak 1996-1997 ehizaldirako ehiza-debekaldien xedapen bat onetsi zuen. Hartan azaroaren 1ean hasi eta abenduraren 31 arteko epe bat ezartzen zuen ur-hegaz-

tiak ehizatzeke, beti ere ehiza eginez soilik ostegunetan, igandetan eta nazio, herri edo foru komunitate mailako jaiegunetan. Departamentuak heldu den ehizaldirako ur-hegaztiak ehizatzeke egin duen proposamenean, azaroaren 1ean hasi eta urtarrilaren 11 bitarteko epea ezarri du, orduan ere ostegun, igande eta nazio, herri edo foru komunitate mailako jaiegunetan soilik. Horren ondorioz joan den urtean baino 5 egun gehiago izanen dira ehizarako. Ehizarako aldia luzatzeko arrazoa da gainerako Autonomi Elkarteetan duten egoerara hurbiltzea, kontutan hartuz, beti ere, Nafarroan espazioak eta espezieak direla-eta dauden mugapenak, hegaztien kontserbazioa bermatzeko bezainbestekoak direla. Azkenik, adierazi ekainaren 14ko 560/1996 Foru Aginduak ez duela 1996-1997 ehizaldirako debekurik ezartzen, ez eta ur-hegaztien ehizarako debekurik ere. Ehizarako debekaldiei buruzko xedapen orokorra besterik ez du ematen, hau da, egun baliodunak eta ehizatzea debekatuta dagoen egunak zein diren besterik ez du ezartzen.

2. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipaturiko aldaketa edo luzapena aurrikusia baldin badu, nork egin du proposamena? Berau irmoki onartua izan al da? Nork onartu du? Zer dela eta? Zeintzuk izan dira halako aldaketaren aldeko arrazoi biologiko, zientifiko edo teknikoak?

Lehenago aipatu dudana bezala, Departamentuak proposatu du ur-hegaztiak ehizatzeke aldia bost egun luzatzea. Arrazoiak lehenago azaldukoak dira: ehiza baliabideak ahal den guztian erabiltzea, beti ere ehizatu ezin daitezkeen gainerako espezieak kontserbatuko direla bermatuz. Kasu honetan, ahal den gehieneko erabilera horrek Estatuko gainerako Autonomi Elkarteetako itxiera-egunetik hurbil egon beharko du, izan ere, ehizatu daitezkeen ur-hegaztiak europako hego-mendebaldeko lurralde zabaletan daudelako. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak proposamen hori planteatu du organo partehartzaileek eztabaida dezaten. Ongi dakizun bezala, erabaki baten baliogarrtasuna foru arau bihurtzen denean gauzatzen da, ez lehenago.

3. Aipaturiko aldaketa edo luzapenari buruz, zein izan da Nafarroako Ingurugiro-Kontseiluaren aurretiazko irizpena? Eta aurretiazko izaeraz Ehizari buruzko Batzorde Aholkuemaileak eman behar duena?

Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak bilera bat eginen du hemendik gutxira, heldu den ehizaldirako Debekuei buruzko Foru Aginduaren proposamena eztabaidatzeko. Ehizari buruzko Batzorde Aholkuemaileak jada proposamena aztertu eta bozkatu du. Batzordeko zenbait kidek ur-hegaztiak ehizatzeke aldia urtarrilaren 25a arte luzatzea eskatu zuten, eta 10 botu alde, hiru kontra eta abstentzio bat izan ziren.

4. Zenbatetan jotzen da honako hauen populazioa Nafarroan: antzara hankagorritzta, zertzeta arrunta, uda-zertzeta, basahatea, kopetazuri arrunta, hegabera, istingor arrunta eta istingor txikia? Zein azterketa burutu dira azken bost urte hauetan espezie hauek Nafarroan duten populazioa determinatzeko? Nork agindu zituen eta nork burutu zituen, eta zein izan da horietako bakoitzaren kostua? Zein datatan eskatu ziren eta zein datatatik egon dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren esku-
ra?

Estimaten diren populazioak, 1996ko ur-hegaztien zentsoaren arabera, ondokoak dira:

Hegazti habiagileak:

Basahate, 137-234 bikote.

Kopetazuri arrunta, 294-342 bikote.

Hegabera, 0-1 bikote.

Seinalatutako gainerako espezieetatik ez daki-
gu habiak egin dituzten.

Hegazti negutarrak:

Antzara hankagorritzta, 64 ale.

Zertzeta arrunta, 559 ale.

Basahatea, 3.958 ale.

Kopetazuri arrunta, 621 ale.

Hegabera, 4.323 ale.

Istingor arrunta, 58 ale.

Istingor txikia, zehaztu gabe.

Azken urteetan egindako ikerlanak ur-hegazti negutarrak aztertzeke egin dira (1989. urtetik); habiagileei buruz zenbait zentso egin dira azken bost urte hauetan, besterik ez, beti ardeidoekin eta naturgune babestuetan.

Ikerlanetarako enkarguak Nafarroako Gobernuak egin ditu beti, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren bidez, eta ondokoak dira atera daitezkeen datuak:

1992. urtean, M^a José Arzoz Labiano izan zen esleipen hartzailea, osotara 2.500.000 pezetako kostuarekin. Esleipena 1992ko urriaren 1ean izan zen.

1993 eta 1994. urteetan, M^a José Arzoz Labiano izan zen esleipen hartzailea, 5.250.000 pezetako kostuarekin (biurteko gastu bat izan zelako). Esleipena 1993ko urriaren 1ean izan zen.

1995 eta 1996. urteetarako, Consultores de Biología y Conservación, S.L. izan zen esleipen hartzailea, 3.908.000 pezetako kostuarekin bi urteetarako. Esleipena 1995eko uztailean izan zen.

5. Zeintzuk izan dira aipaturiko ur-hegaztien ehizaren emaitzak 1996-1997 denboraldian? Hegazti hauen zenbat ale jotzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ehizatu direla Nafarroan?

Estimaturiko populazioaren zein zati da kopuru hori, portzentaia bidez adierazita?

Zoritarrez ehiza espezieen harrapaketa-taulak lortzea irtenbide zaileneko erronka da Administrazioentzat. Edozein kasutan ere, Nafarroan hegaztiak erabil ditzaketen ur-espazioetatik gehienak babestuta daude gaur egun, eta ezin da ehiza probetxamendurik atera haietan. Egitura horretatik abiatuta atera behar den ondorioa da Nafarroako ur-hegaztien ehiza probetxamendua huskeria bat dela ia, ur-hegazti negutarren populazioaren aldean, eta are txikiagoa kontutan hartzen badira Nafarroan harrapatzen diren animalia guztiak.

6. Zein kontrol egin du Ingurugiro-Departamentuak ur-espezie hauen joan den denboraldiko ehiza debekualdiei buruzko Foru Aginduaren edukira egokitzen dela bermatzeko, beste espezie edo balore naturalak kaltetu gabe? Datorren denboraldirako zein kontrol ezartzeko asmoa dago?

Goardia Zibilak, Foruzaingoak eta Ingurugiroko Zaindegiak bermatzen dute ehiza-jarduera ezarritako arauen barrenean egiten dela. Gure iritziz, bijilantzia talde hauek egiten duten lanak dezente ongi bermatzen du ehizaren probetxamendua ezarritako arauen barrenean egiten dela.

7. Nafarroako zein lekutan egin da nagusiki ur-hegaztien ehiza? Horietako zeintzuk dira naturgune babestu (habitaten kontserbazioari buruzko 92/43 Arteztarauan aipaturiko habitat-a, alegia), hezeguneen Inbentarioan sarturiko hezegune, hegaztien babesgune berezi edo babeserako beste figura bat?

Ur-hegaztien ehiza Ehizaren Antolamendu Planek baimendurik burutzen da toki guztietan, debekualdiei buruzko Foru Aginduak markatutako mugekin. Naturgune babestuetan ur-hegaztien ehiza baimendu daiteke, ekainaren 17ko 9/96 Foru Legearen 2-1 xedapen gehigarriaren arabera. 1996. urtean baimena eman zitzaion Alesbes-

ko Ehiztarien Elkarteari Badina Eskudera (NL-8) Naturgunean ehizatzeo, ehizaldiaren lehenbiziko egun baliiodunetik abenduaren 31 bitartean, behin-behinekoz. Etorkizuneko jarduerak ehiza jarduerak espezie babestuetan zeukaten eraginaren jarraipenaren arabera geratuko ziren.

8. Ur-hegaztien ehiza dela eta, beste espezie ez zinegetiko edo Mehatxaturiko Espezieen Katalogoetan sarturikori tiro egin zaionik, edo berauek zauritu edo hil izan dituztenik detektatu al du Ingurugiro-Departamentuak? Espezie ez zinegetiko edo mehatxatutako hauetako zeintzuk eta zenbat kaltetuak edo hilak gerta izan litezke ur-hegaztien ehiza dela medio?

Nafarroan ur-hegaztiak ehizatzea ohikoa ez den kontua da, lehenago azaldu den bezala. Ur-hegaztiekin erabiltzen ahal dituzten espazioetatik gehienek erabilera eta kudeaketa planak dituzte, ehiza kanpoan uzten dutenak. Basahatearena da, gehien bat, egiten den ehiza: horixe da ehizakirik funtsezkoena; hegazti horren populazioa, berriz, ugaria da gainerako ur-espezieen aldean. Arrazoi horiengatik guztiengatik ez da ohikoa ehizakoak ez diren edo Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartuta dauden ur-hegaztiak tirokatu, zauritu edo hiltzea. Departamentuko arau-hausteen erregistroan 1996. urtean bi salaketa baizik ez dago, zehapena jartzeko izapidatzen ari direnak gaur. Bietako bat ubarroi bat hiltzeagatik eta bestea debekaldian zertzeta arrunt bat hiltzeagatik. Bi espedienteak izapidetan daude gaur.

9. Debekualdiei buruzko Foru Aginduak xedatutakoaren kontra zona hezeetan ur-hegaztiak edo beste espezieak ehizatu izana dela eta, jaso al du Ingurugiro-Departamentuak inolako salaketarik? Zenbat? Zein aldetan antzeman zaie arau-hausteei? Zenbat zehapen ezarri du Ingurugiro-Departamentuak? Zein zenbatakorekin? Ezgaitu izan al da inoiz urratzailerik?

Aurrekoan erantzun da hori.

10. Ur-hegaztien ehizak lertxun hausgara, erralidoak eta anatidoak bezalako babesturiko espezieak kaltetu ez ditzan, bereziki ugalketa-aldietan, zein neurri zehatz hartzeko asmoa du Ingurugiro Departamentuak?

Nafarroan naturgune babestuak eta ehizakoak ez diren basa hegaztiak kontserbatzeko dauden arauak aski dira ur-hegaztien populazioak foru lurraldean iraungo duela bermatzeko. Debekaldiei buruzko Aginduak, bere aldetik, batera joan behar du espazio horiek babesteko eta haien ugalketa inongo kalterik gabe bermatzeko muga batzuk jarzaren behararekin. Neurri horiek guztiak aplika-

tu izan dira eta etorkizunean ere aplikatzen jarraitu behar direla uste dugu.

11. Ba al dirau Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ur-hegaztien jarraipen-azterketak egiten? Hala balitz: Zer azterketa ari dira burutzen gaur egun? Zer azterketa entregatu dira azken urtean zehar?, eta datozen hiru urteetan zer jarraipen- eta kontrol-azterketa egitea dago aurreikusita? Zenbaei jotzen du beren kostuak?

Ramsarreko Hitzarmenaren arabera nazioarteko garrantziko deklarazioa duten gune hezeetan, konpromisoa dago ur-hegazti negutiarren eta habiaegileen zentsoa gauzatzeko.

Hurrengo hiru urteetan ikerlan horiek izanen duten kostua aurrekontu ekitaldi bakoitzeko baliagarritasunen arabera izanen da.

12- Ongi irizten al dio Ingurugiro Departamentuak Nafarroan ur-hegaztien ehiza debekatu edo neurririk handienez mugatzeari, beste Autonomia Erkidego batzuetan egin den bezalaxe? Azken hamar urteetan, zein urte eta datatan baimendu da Nafarroan hegazti hauen ehiza, legeen arabera?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egoki ikusten du natur baliabide guztien probetxamendurik handiena egitea, ehizarena barne, beti ere denboran probetxamendu horiei eusten ahal bazaie, eta probetxamendu horrekin edo bestelako probetxamenduekin lotura izan dezaketen animalien eta landareen komunitateak kontserbatzearen lehentasuna jarriz. Ur-hegaztien ehiza debekatzeak edo mugatzeak, jarrera horri eusten dion bestelako arrazoirik eman gabe, agerian uzten du, gure ustez, ehizaren aurkako sentimendu bat, zalantzarik batera gabe etikako balore errespetagarria, baina natur baliabideen kudeaketaren ikuspuntutik oso oinarri eskasa duena. Ondokoak dira azken 10 urteotan debekaldiei buruzko Aginduetan ur-hegaztiak aldi baliiodunetan ehizatzeo ezarri diren mugak:

– 1987-88: urriko hirugarren ingandetik otsailera laugarren ingandera. Martxoko lehen ingandera arte zabalduko da Allozko urtegiaren, La Navako urtegiaren (Cintruénigo), Lotzako putzuan (Oltza), Zuastiko putzuan, Dos Reinosko putzuan (Figarol), Zoliako putzuan (Aranguren ibarra), Cardeteko putzuan (Tutera), Corellako urmaelean eta Prado Bajoko putzuan (Ablitas).

– 1988-89: urriaren 23tik otsailaren 5era, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1989-90: urriaren 22tik otsailaren 4ra, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1990-91: urriaren 28tik abenduaren 30era, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1991-92: urriaren 6tik abenduaren 30era, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1992-93: azaroaren 1etik abenduaren 31ra, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1993-94: azaroaren 1etik abenduaren 31ra, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1994-95: azaroaren 1etik abenduaren 29ra, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1995-96: azaroaren 1etik abenduaren 31ra, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri mailako jaiegunetan.

– 1996-97: azaroaren 1etik abenduaren 31ra, ostegun, igande eta nazio, komunitate eta herri

mailako jaiegunetan. Baimena ematen da, era berean, basahatea ehizatzeko abuztuaren 4tik irailaren 15era hegoaldean eta abuztuaren 15etik irailaren 15era iparraldean, Ehiza Antolatzeako Planetan baimendutako esparruetan.

13. Komenigarritzat jotzen al du Departamentuak haien ehizaldia azaroan edo, nolana ere, urtarrilaren 6a baino lehenagoko data batean ixtea?

Departamentu honek ez du egoki ikusten, inongo kasutan ere, ur-hegaztiak ehizatzeko aldia azaroan ixtea. Gure iritziz, abenduaren 31ren inguruan hasi eta otsailaren hirugarren astera bitarteko aldia da egokiena, ur-hegazti goiztiarren hazkuntza-aldian kalterik ez egiteko eta ehiza espezieen arrazoizko probetxamendurako bidea eman ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 16an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Las Cañasko aintziraren zaintza zerbitzuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Las Cañasko aintziraren zaintza zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Las Cañas-ko aintziraren zaintza zerbitzuari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakizkion eginiko galderak direla-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Ingurugiro Departamentuak kendu al du Las Cañasko aintzirako zaintza berezia? Erantzuna baiezkoa izatekotan: Zer dela-eta?

2.- Zenbat ingurugiro-zaindari zaintzen ari dira aintzira? Zer txandatan egiten dute?

Hainbat naturgunetako monitorizazio- eta zaintza-lana lehiaketa publikora atera zen 1996ko ekitaldirako; horien artean aurkitzen zen Salobre edo Las Cañasko Urtegiko Natur Erreserba.

Zehazki, naturgune honetarako, baldintza teknikoen orrian El Bordón izeneko hegazti-behalekuaren ardura hartzea galdatzen zen, erabilera publikoak eta jarduera tradizionalak ekar litzaketen balizko ingurugiro-eraginak zaindu eta kontrolatzeko eginkizunez gain.

Hala ere, 1997ko ekitaldirako, egoki jo zen lehiaketa publiko bidez kontratatzea Las Cañasko (Viana) Urtegiko Natur Erreserban dagoen El Bordón hegazti-behalekuaren kudeaketa. Bisitarien kopurua asko hazi da behalekua ireki zenetik, eta publikoari arreta egiteko programa bereziak garatzera behartzen du honek.

Honek ez du esan nahi Natur Erreserba gutxiago zainduko denik, baizik eta El Bordón-eko behalekuak aurreko urteetan baino kudeaketa sendoagoa izango duela.

Ingurugiro Zaintzako Errondari dagokio Las Cañasko Urtegiko Natur Erreserbaren zaintza. Erronda honen ohiko jardueretako bat ingurua zeharkatzea eta bertako maila guztietako ingurugiro-egoera ikuskatzea da.

Zeregin hau burutzeko pertsona-banaketa, hala nola bisiten ordutegia eta maiztasuna, Zaindari Nagusiak Errondan eginiko antolaketaren menpean daude. Zaindari horrek, hiru hilabeteoro, tarte horretan egin duen lanari buruz kontuak eman behar dizkio Natura Zaintzako Zerbitzuari.

3.- Nolako neurri zehatzak aurreikusi ditu Ingurugiro Departamentuak nazioarteko garrantzia duen eremu heze honen zaintza eraginkorra bermatzeko?

Las Cañasko Urtegiko Natur Erreserba nazioarteko garrantzia duen eremu hezea izateak ez du beharrezko egiten egunez eta gaez ingurua zainduko duten zaindari zehatzak esleituz burutu beharreko etengabeko zaintza berezirik.

Honelakorik ez da lehenago egin, eta balizko ingurugiro-kalteen mehatxu-mailak ere ez du horrelakorik gomendatzen.

Nolanahi ere, abian daude hainbat elkarrizketa Viana-ko Udalarekin, naturgune garrantzitsu honen erabateko babesa eta kontserbazioa bermatzeko dituen hitzarmen bat sinatzeko asmoz. Aztergaietako bat ingurua zaintzeari eta horren eraginkortasuna bermatzeko sistemei buruzkoa da, gaur egungo beharrezan eta etorkizun hurbilerako aurreikusten direnen arabera.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 17a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Tuterako Osasun Barrutiko osasun zentroak informatizatzeko eta kableatzeke plan pilotu bat egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Tuterako Osasun Barrutiko osasun zentroak informatizatzeko eta kableatzeko plan pilotu bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Tuterako Osasun Barrutiko osasun-zentroak informatizatzeko eta kableatzeko plan pilotu bat egiteari buruz Ion Iñaki Erro Armendariz, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

1.- Osasun Departamentuak ba al du Tuterako Osasun Barrutiko osasun-zentroak informatizatu eta kableatzeko plan pilotoa egiteko asmorik? Baiezkoan, noraino iritsi dira plana egitean? Zer eduki du? Zer neurri hartu du Osasun Departamentuak erabiltzaileen datuen isilpekotasuna eta babesa ziurtatzeko?

Osasun Departamentua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, ez da Tuterako Osasun Barrutiko osasun-zentroak informatizatu eta kableatzeko ezein plan pilotorik egiten ari.

Hala ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ardurapekoak diren zentroetan Informazio Sistemen Plan Orokor bat burutzen ari da, ahalegin zehatzak eginez honako alderdi hauetan:

- Zerbitzuaren ardurapekoak diren zentro guztietako egoitzak kableatzea.
- Toki-sare ezberdinen konektibitateko routerak erosi eta martxan jartzea.
- Sare-zerbitzariak erosi edo zabaltzea.
- Informatika-ekipoak erosi eta sarean txertatzea, horretarako beharra duten lanpostuetarako.
- Lanpostu ezberdinetan mikroinformatika-softwarea sartzea.

– Informatika-programak erosi eta txertatzea (laborategiak, Odol Bankua eta abar).

– Informatika-aplikazioen garapen berekia (fakturatzea, biltegiak, langilegoaren kudeaketarako sistema integrala, ordu-ematea, harrera, erizaintza kontrolak, larrialdiak, dietetika, historia klinikoaren artxiboa, itxaron zerrendak, anbulantzia eskaerak, osasun txartela eta abar).

Azken urteotan informatika-ekipoak erosten soilik egindako inbertsioak hauexek dira:

1994. urtea: 97 milioi.

1995. urtea: 108 milioi.

1996. urtea: 138 milioi.

1997. urtea: 214 milioi.

1997rako informazio sistemen arloko inbertsio-planean, Tuterako Osasun Barrutirako honako proiektu hau sartzen da: Tuterako bi osasun zentroyen (Tutera Ekialdea eta Tutera Mendebaldea) eta ospitalearen arteko on-line konexioa eta, honekin batera, toki-sareak, zerbitzariak eta lanpostuko informatika-ekipoak hobetu eta gehitzea. Proiektu hau, 1997rako informazio sistemen planaren gainontzekoarekin batera, garapen-fasean dago.

Hauek guztiak Nafarroako Gobernuak ahots, irudi eta datuen korporaziozko sarearen osagai dira.

Izaera pertsonaleko datuak dituzten eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ardurapekoak diren fitxategi informatizatuak 193/94 Foru Dekretuaren bidez sortuak eta arautuak izan dira, izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatu arautzeko 5/1992 Lege Organikoak ezarritakoa aplikatuz.

Ildo honetan, aipatu beharrekoak dira atal funtzional ezberdinen arabera informatikako aplikazio ezberdinetarako sarbide-kode sekretuak.

2- Zer inbertsio erakarriko du aipatu plana egin eta garatzeak?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren informazio sistemen planak 214 milioiko aurrekontu-hornidura du 1997rako.

3.- Edonola ere, Osasun Departamentuak lehenasunez jotzen al du Tuterako Osasun Barrutiko osasun-zentroak informatizatu eta kable-

atzeko inbertsioa, oinarrizko osasun-laguntzako beste beharriaren aurretik?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak inbertsio estrategikotzat jotzen ditu informazio sistemetan eginiko inbertsioak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bezalako zerbitzu-enpresa batean informazioak daukan garrantzia dela-eta.

Informazio sistemetan egin beharreko inbertsioak eta beste hainbat inbertsio 1997rako Aurrekontu Orokorrek aurreikusirikoak dira.

1997ko aurrekontuek jasotzen dituzten 214 milioietan badago lerro berezi bat oinarrizko osasun laguntzan, Osasun Zentroen informatizaziorako, 60 milioi pezetako hornidura daukana.

4.- 1997ko ekitaldiko hurrengo hilabeteetan, zer inbertsio-gastu egingo da Tuterako Osasun Barrutian? Horietatik zeintzuk izango dira urte batzuetarako?

Datozen hilabeteetan Tuterako Osasun Barrutian 50 milioi pezetako zenbatekoa duen informazio sistemetarako inbertsio bat egitea aurreikusten da.

Informazioa prozesatzeko ekipoen lerroan ez dago urte batzuetarako inongo konpromisorik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan. Datozen urteetan informazio sistemen plan orokorrarekin aurrera jarraitu nahi du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, urteoro Parlamentuak onesten dituen aurrekontu-horniduren arabera.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 13a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Beste estatu batzuetatik datozen zainzurien osasun kontrolari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak beste estatu batzuetatik datozen zainzurien osasun kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak hirugarren herrietatik heldu diren zainzurien osasun kontrolari buruz egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Perutik ekarritako zainzuri-kontserbak kontsumitzeak sortutako botulismo kasu batzuk ager-

tu bezain pronto, harremanetan jarri ginen Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin informazioa biltzeko. Informazio horri esker jakin genuen produktu hori ez zela Nafarroan banatu. Dena den ikuskapen bat egin zen Peruko zainzuria inportatutako Nafarroako industrietan, eta kautelazko neurri gisa, loteetako lagin batzuk hartu eta izakinak geldiarazi ziren. Guztira, Foru Komunitateko 6 industrietan 22 lagin hartu ziren beste hainbeste fabrikazio loteri zegozkienak, eta guztiek emaitza negatiboak eman zituzten.

2. Nafarroako Gobernuak ekarpen ekonomiko bat ematen du Nafarroako Zainzuria sustatzeko kanpainetarako, Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arauemailearen bitartez. Kontseilu horrek ezartzen ditu publizitatea egiteko abagunea eta publizitate horren ezaugarriak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko ekainaren 16an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro

Castejondik Tuteraraino, N-232 errepideko trafikoaren intentsitateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Castejondik Tuteraraino, N-232 errepideko trafikoaren intentsitateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua” de Navarra Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Castejón-Tutera-Cortes, N-232 errepideko batezbesteko intentsitateaz, puntu beltzez eta istripu kopuruaz egindako galdera dela eta, izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1.- N-232 errepideko batez besteko intentsitatea, guztizko trafikoaren arabera, eta ibilgailu astunetan eta gainerakoetan banakatua, hiler, 93-94-95-96 urteetan.

CASTEJON-TUTERA NA-18

URTEA	GELTOKIA	HILABETEA	ARINAK	ASTUNAK	ASTUNAK%	GUZTIRA
1993	NA-18	EBI 1993	5327	3858	42,00	9185
1994	NA-18	URRIA	6410	3847	37,51	10257
1994	NA-18	ABENDUA	6181	4299	41,02	10480
		EBI1994	6115	4076	40,00	10191
1995	NA-18	URTARRILA	5415	4689	46,41	10105
1995	NA-18	MARTXOA	5984	4702	44,00	10687
1995	NA-18	MAIATZA	6214	4072	39,59	10286
1995	NA-18	UZTAILA	7597	4790	38,67	12387
1995	NA-18	IRAILA	6803	4786	41,30	11588
1995	NA-18	AZAROA	5922	4758	44,55	10680
		EBI 1995	6269	4690	42,80	10959
1996	NA-18	URTARRILA	5868	4118	41,24	9986
1996	NA-18	MARTXOA	6268	4534	41,97	10802
1996	NA-18	MAIATZA	6521	4527	40,98	11048
1996	NA-18	UZTAILA	7218	4226	36,93	11444
1996	NA-18	IRAILA	7004	4632	39,81	11636
1996	NA-18	AZAROA	5749	4745	45,22	10494
		EBI 1996	6443	4471	40,97	10914

TUTERA-RIBAFORADAKO BIDEG. NA-5

URTEA	GELTOKIA	HILABETEA	ARINAK	ASTUNAK	ASTUNAK%	GUZTIRA
1993	NA-5	URTARRILA	2997	4030	57,35	7027
1993	NA-5	MARTXOA	4309	3385	44,00	7694
1993	NA-5	UZTAILA	4920	3707	42,97	8627
		EBI 1993	4497	4085	47,60	8582
1994	NA-5	ABUZTUA	8561	3634	29,80	12196
		EBI 1994	7094	4095	36,60	11189
1995	NA-5	URTARRILA	5822	3834	39,71	9656
1995	NA-5	MARTXOA	7390	4734	39,05	12124
1995	NA-5	UZTAILA	9124	4758	34,28	13882
1995	NA-5	IRAILA	8489	4776	36,00	13265
		EBI 1995	7875	4664	37,20	12539
1996	NA-5	MARTXOA	8946	4369	32,81	13315
1996	NA-5	MAIATZA	8886	4214	32,17	13100
1996	NA-5	UZTAILA	8873	4311	32,70	13184
		EBI 1996	8902	4298	32,56	13200

RIBAFORADAKO BIDEG.-ZARAGOZAKO MUGA

URTEA	GELTOKIA	HILABETEA	ARINAK	ASTUNAK	ASTUNAK%	GUZTIRA
1993	NA-69	MAIATZA	4335	3854	47,06	8189
1993	NA-69	IRAILA	4724	3223	40,55	7947
1993	NA-69	AZAROA	3721	3919	51,30	7640
1993	NA-69	EBI 1993	4291	3655	46,00	7946
1994	NA-69	OTSAILA	3986	3797	48,79	7783
1994	NA-69	APIRILA	4552	4108	47,44	8661
1994	NA-69	EKAINA	4857	4061	45,54	8918
1994	NA-69	ABUZTUA	5562	3462	38,36	9024
1994	NA-69	URRIA	5213	3667	41,30	8880
1994	NA-69	ABENDUA	4806	3957	45,15	8763
		EBI 1994	4653	4011	46,30	8664
1995	NA-69	URTARRILA	4041	4533	52,87	8574
1995	NA-69	MARTXOA	4376	4470	50,53	8846
1995	NA-69	MAIATZA	4799	4570	48,77	9369
1995	NA-69	UZTAILA	6185	4485	42,04	10670
1995	NA-69	IRAILA	5635	4525	44,54	10161
1995	NA-69	AZAROA	4430	4665	51,29	9094
		EBI 1995	4827	4491	48,20	9318
1996	NA-69	URTARRILA	3154	5500	63,55	8654
1996	NA-69	MARTXOA	4932	4378	47,02	9310
1996	NA-18	AZAROA	5026	4680	48,22	9706
		EBI 1996	5018	4337	46,36	9355

2.- 1993 eta 1996 bitartean, biak barne, aipatu errepideko zati horretan aitortu diren puntu beltzak, aldaketa eta guzti.

PUNTU BELTZAK (1993-1996)

URTEA	ERREPIDEA	K.P.	ISTRIPUAK	BIKTIMAK	HILDAKOAK	ZAURITU LARRIAK	ZAURITU ARINAK
1994	N-232	116,0	3	2	0	0	2
Corteko Gurutze Gorriaren parean.							
1995	N-232	92,6	5	6	1	1	4
Tuterako saihesbidearen iparreko bidegurutzea.							
1995	N-232	97,5	3	2	0	0	2
Bideko bidegurutzea.							

3.- Aipatu errepide-zati horretan gertatu diren istripuen kopurua. Aipa bitez hildakoak eta larriki

zaurituak, 93, 94, 95 eta 96 urteetan, urteroko datuak emanez.

N-232 ERREPIDEAN IZANDAKO ISTRIPUAK (1993-1996)

URTEA	ERREPIDEA	ISTRIPUAK	BIKTIMAK	HILDAKOAK	ZAURITU LARRIAK	ZAURITU ARINAK
1993	N-232	51	47	4	14	29
1994	N-232	41	41	2	19	20
1995	N-232	47	60	6	20	34
1996	N-232	45	41	4	11	26
1993-1996	N-232	184	189	16	64	109

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 19an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseil-
ria, José Ignacio Palacios Zuasti

Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentari Taldeko Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruz egindako galdera dela eta, izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

Komunitate honetako aldizkariren batean Los Fayosko urtegiaren eraikuntza-lanak geldirik daudela argitaratu da. Honen aurrean honako hau jakin nahi da:

1. Lanak geldirik baldin badaude, zein diraldialdiaren arrazoiak? Geldialdia saihesteko neurri zehatzik hartu al da?

2. Zenbat denboraz uste da iraunen dutela geldirik lanek? Nafarroako Gobernutik nolako ekintzak egiten ari dira lanek aurrera jarrai dezaten?

Valeko urtegiari Los Fayosko urtegia ere esaten zaio Zaragoza probintziako izen bereko herrian dagoelako, nahiz eta erregulazio horren onuradunak hein batean Nafarroan dauden. Ebroko Ur Konfederazioak goitik behera burututako lana, zeinean Nafarroako Foru Komunitateak diru-ekarpenik batere egin ez duen.

Lanetan erantzukizun tekniko zein ekonomiko ez duen arren, Herrilan Zerbitzuak baditu informazio batzuk lanari buruz, Ebroko Ur Konfederazioak emanak. Informazio horien arabera esan daiteke lan horiek ez daudela geldirik gaur egun, baizik eta erabateko normaltasunez burutzen ari direla.

Aurtengo martxoan lanen gelditzeari buruz egunkarietan argitaratu ziren berriak Los Fayosko Udalak emandako agindu batekin lotu behar dira. Agindu horretan adierazten zen lanetarako udalaren lizentzia falta zela. Dena den, lanak geldiaraz-

teko agindu hori Aragoiko Auzitegi Nagusiak eten zuen behin-behinekoz, eta lanen geldiarazpena ez zen gertatu, beraz.

3. Lan hauen geldialdia zenbat kostatu ahal zaio egunero Administrazioari?

Lan horiek burutzeko kostua, geldialdia gertatu ala ez gertatu, hutsa da Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarentzat.

4. Zenbat litro ur hartuko du orokorrean Los Fayosko urtegiak ukitutako nafar udalerrri bakoitzak? Nola banatuko dira erabilera desberdinak, hau da, giza kontsumoa, industriarena eta nekazariena?

Ebroko Ur Planaren proposamenak, 1966ko apirilean Uraren Kontseiluak onetsitakoak, aurreikusten du Valeko urtegiak ondoko erabilera-lehentasunak izanen dituela:

1.a. Fitero, Cintruénigo eta Cascante herriei eta Aguas del Moncayo-ri hornitzeko oraingo kontzesioak mantentzea, eta Los Fayos, Torrellas, Novallas, Tarazona eta Vierlas herrietako hiri eta industri hornidurei erantzutea.

2.a. Queiles ibaiaren gutxieneko ur-emia mantentzea, Queiles eta Val ibaien bilgunetik behera.

3.a. Erreteren bidez zerbitzatzeko diren ureztaketa eskaerak (iraunkorra eta aldi baterakoa) sendotzea. Egindako eredurako uste izan da ureztatu daitekeen lurrazala Magallón Grande, Magallón Fiel, Irués, Cercés, Orbo eta Los Molinos erreternei dagokiena dela, baina azkenean, Valeko uharkek eragindako probetxamenduen antolamendu teknikoa eta legezko antolamendua ikerlanak zehaztuko dituenak izanen dira erregulazioaren onuradunak.

Aipatu ur-planean ibai-arroari buruzko balantzea bat egiten da. Balantze horretan agerian uzten da Valeko urtegiak ezin izanen dituela erantzun ureztatu daitekeen eskualde osoaren eskaerak (ureztaketa finakoak eta aldi baterakoak): 28,47 hm³/urteko defizita dago.

5. Nekazariak hartu ahal izango duten urari dagokionez, ureztatze-sail berriak sortuko dira edo egun daudenen ur-honiketa hobetuko da?

1996ko apirilaren 8ko Ur Planaren proposamenan aurreikusten da dauden kontzesio-eskubide guztiak errespetatuko dituela Valeko urtegiak. Eskubide horiek eta urtegiaren ustiapena antolatu

ahal izateko, Ebroko Ur Konfederazioa hasia da Valeko uharkak eragindako probetxamenduen antolamendu teknikoa eta legezko antolamendua izeneko ikerlana burutzen.

6. Ureztatze-sail berriak sortzekotan, ureztatze-sail berrien plan nazionaletan aurreikusi al dira?

Valeko urtegiak ez du uretze-sail berriak sortzeko adina ur erregulatuko.

Ebroko eskuin aldeko Nafarroako eskualdeari dagokionez, Ureztaketa Plan Nazionalak Nafarroako Ubideak ekarriko dituen aldaketak aipatzen ditu.

7. Zeintzuk dira Los Fayosko urtegitik ura jasotzeko duten industrialdeak?

3. galderaren erantzunean adierazi bezala, Ebroko Ur Planean aurreikusitakoaren arabera,

ondoko hiri eta industri hornidura-kontzesioei erantzuten die Valeko urtegiak:

– Fitero, Cintruenigo eta Cascanteko Mankomunitateen kontzesioari.

– Moncayoko Mankomunitatearen kontzesioa. Mankomunitate horrek Monteagudo, Barillas, Tulebras, Murchante, Ablitas, Ribaforada, Buñuel eta Corella herri nafarren hornidura egiten du, Alfarokoa (Errioxa) eta Malónekoa (Aragoi) egiteaz gainera.

– Los Fayos, Torrellas, Novallas, Tarazona eta Vierlas herrietako kontzesioari.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti

Autopista Vasco-Aragonesa bidesariaren balizko murrizketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Autopista Vasco-Aragonesa bidesariaren balizko murrizketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Autopista Vasco-Aragonesa bidesariaren balizko murrizketari buruz egindako galdera dela eta, izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Vasco-Aragonesa autobideko bidesariaren balizko murrizketa dela-eta, Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartuko al du?

Vasco-Aragonesa autobidea Estatuaren emakidaduna da, beraz Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik bidesariak direla-eta egin daitezkeen balizko negoziketetan parte hartzeko.

Dena den, Nafarroako Gobernuak uste du oso positiboa izanen dela akordio batera ailegatzea esleipen-hartzaile horren eta Sustapen Ministerioren artean autobide horretako bidesariak nabarmen murrizteko.

2. Neurri hau N-232 errepidearen Nafarroako zatian trafikoa gutxitzeko aski izanen dela uste al du Nafarroako Gobernuak?

Une honetan, eta ezagutu gabe Vasco-Aragonesa autobidean bidesariaren murrizketa noraino ailegatuko den, ezin da aurreratu trafikoa izan dezakeen eragina.

Dena den, bidesariaren murrizketa hori nabarmen izatea espero da, N-232 errepideko trafikoa, batez ere trafiko astuna, harrapatzeko orduan eragin zuzena izan dezan.

3. Nafarroako Gobernuak, ukitutako herriek eskatzen duten bezala, N-232 errepidearen Nafa-

roako zatia destolesteko aukera berraztertuko al du?

Ebroko ardatzean zehar autobide bat dagoez, Nafarroako Gobernuak uste du une honetan ez dela arrazoizkoa bigarren autobia bat eraikitzea azpiegitura horren paraleloan.

Une honetan, neurri guztiak autobidean trafikario handiagoa lortzera bideratu behar dira, N-232 errepidea arintzeko eta balizko inbertsioak atzeratzeko. Dena den, Nafarroako Gobernuak hurrengo urteetan Tuterako Saihesbidea bikoizteko lanak burutuko ditu, izan ere, N-232 errepidearen beraren trafikoa jasotzeaz gain, zeharkatzen duen industrigunearen trafiko lokala ere hartzen duelako.

4- Zein dira Nafarroako Gobernuak Tuterako saihesbidean N-232 errepidearen destolesketa egiteko aurreikusi dituen epe zehatzak?

Egun onesteko bidean izapidatzen ari den 1998-2005 Errepideen Plan Zuzentzaileak biltzen

duenez, aipatu lanak 1999, 2000 eta 2001. urteetan gauzatzea aurreikusi da.

Gaur, Tuterako Saihesbidearen ibilbidea destolesteko proiektua lantzen ari da. Proiektu hori heldu den uztailan bukatuko da.

Orduantxe hasiko dira eraikuntza proiektua egiteko administrazio-izapidaketak, bai eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko aldia ere, hain zuzen ere hori guztia 1998an bukatzeko xedearekin. 1999an ekinen zaie lanei, Errepideen Plan Zuzentzaileak aurreikusi zuen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 19an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti.

Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Planaren betetzeari buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

1. Gobernuak eusten al dio Nafarroako Foruzaingoaren Antolaketa eta Zereginei buruzko Plan Zuzentzailearen alde guztiak garatzeko asmoari, Nafarroako Parlamentuak bere garaian onetsi zituen erabaki eta guzti?

Baiezkoan zer ekintza eta negoziaketa ari da burutzen Estatuko Gobernuarekin aipatu asmo politikoa eta plan zuzentzailearekin batera onetsitako erabakiek ziotena gauzatu ahal izateko?

Lehendakaritza eta Barne Kontseilari honek Lehendakaritza eta Barne Batzordean adierazi zuen bezala, Departamentuaren jarduera-lerroak aurkezteko orduan, Nafarroako Gobernuak Antolaketa eta Zereginei buruzko Plana garatzeko asmoa du, beti ere 1994ko ekainaren 28an Nafarroako Parlamentuak onetsi zituen ebazpenei jarraituz, noski, izan ere, Parlamentuak berak erabakita horiek guztiak Planari berari erantsi baizitzaizkien (6. ebazpena)

Foruzaingoko plantilaren hazkunde-erritmo moderatuak bidea ematen du giza-baliabideen hurrenez hurreneko igoerak gertatzeko, jada eskuratuak ditugun baina Planean aurreikusitako

baliabide kopurua jaso ez dituzten eskumenak betetze aldera, eta zaildu egiten du eskumen berriak jasotzeko baliabideak esleitzea; gaur egun, Trafiko Saila indartzeko joera dago eta hemendik gutxira beharrezkoa izanen da Tuterako destakamentuari arian-arian dotazioak ematea.

Hala ere, Plan Zuzentzailea bere finantzaketari loturik dago erabat, eta hori ageriko gauza bada ere, poliziaren alorrean Foru Komunitateak bere gain hartu duen karga hori ezagun dakiola eskatzea eta karga hori Nafarroako Estatuari ematen dion ekarpen ekonomikotik kentzea dira Hitzar-

men Ekonomiko berriaren Batzorde Negoziatzaileak landu beharreko puntua, Nafarroako Parlamentuak onetsitako 2. eta 3. Ebazpenetan adierazi eta Planean jasotakoari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoean xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen presentziari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen presentziari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Europako Batasuneko Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen partehartzeari buruz Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentariak eginiko galderari ihardetsiz, honako hau agertzen du Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak:

Maiatzaren 15 eta 16an Amsterdamen egindako eskualde eta hirien Europako bileran Nafarroako Gobernuak ez zen izan. Partehartzeko ahalmena Eskualdeen Batzordeko kide titularrek soilik zuten gero, Nafarroa ordezkatu ahal izango zuen pertsona bakarra Miguel Sanz Sesma Gobernuak Lehendakari jauna zen; Holandako hiri horretan bilera hasi baino ordu gutxi batzuk lehenago, Peru eta Brasileko bere bisita ofiziala amaitu zuen horrek, hain zuzen.

Sanz lehendakaria eskualde eta hirien Europako bilerara joan ahal izan zedin alde aurretik agintari eta enpresagizon hegoamerikarrek hartutako konpromisoak bertan behera uzteari buruzko balorazioa egitean, bilera hori protokoloa besterik ez zela gozoan izan zen.

Amsterdamen ez zen eztabaidarik ez bozketa-rik egin; horren ordez, Edmund Stoiber Bavariako ministro-lehendakariak eta Fernando Gomes Portoko alkateak landutako txosten bat onetsi zen, aho batez. Aipatu txostenak alde aurretik Eskualdeen Batzordeko Erakunde Aferetarako Komisionaren oniritzia izan zuen, apirilaren 10ean Valentzian egin zen bilkuran, eta txosten hori ezagutzen zuen Nafarroako Gobernuak.

Bilkuran parte hartu zuen hainbatek publikoki onartu duen bezala, Amsterdamen zegoen asmoa Europako proiektuaren garapenean eskualde eta hiriek duten eginkizunaz ohartaraztea zen. Nafarroako Gobernuak Merkataritza eta Industri Ganbarak antolaturiko Hegoamerikako bidaiaren programa Sanz lehendakaria propaganda- interesa zuen argazki batean agertzearen ez aldatzea erabaki zuen. Aipatzekoa da Katalunia, Madril, Andaluzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Kantabria eta Extremadurako Autonomia Erkidegoetako lehendakariak ere ez zirela Amsterdamen egon, eta erabaki hau bat etorri zen Alemaniako eskualdeetako lehendakari gehienek hartutakoarekin.

Komunikabideetan pentsatuz eginiko keinuak alde batera utziz, Nafarroako Gobernuak lanean tinko dihardu geure komunitatearen interesak

defendatuz Europako Batasunaren etorkizunerako erabakigarria den une honetan; hain zuzen ere, Ekialdeko herrialdeen balizko sarreraren ondorioz kohesio-politikak kolokan dauden honetan. Azken asteetan, Ekonomi eta Ogasun Kontseilari honek bilera bana egin du arlo horretan giltzarri diren bi pertsonarekin; alegia, Monika Wulf-Mathies, Eskualde Politikarako Komisario Europarrarekin eta Eneko Landaburu, Europako Batasuneko

Eskualde eta Kohesio Politikako Zuzendari Nagusiarekin.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 20a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuko hainbat Batzorderen osaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 23an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Ikusirik «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko izkribua, Talde horretako kideek hainbat batzordetan izan dituzten aldaketei buruzkoa, ERABAKI DA:

Lehena.- Aipatu izkribuaren berri baduela adieraztea.

Bigarrena.- «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko izkribuan agertzen diren aldaketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ohiko Batzordeak:

EKONOMI ETA OGASUN BATZORDEA

MAHAIA

Batzordeburua

Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)

Batzordeburuordea

Nuria Iturriagaitia Ripoll andrea (UPN)

Idazkaria

Martín Landa Marco jauna (IU-EB)

BATZORDEKIDEAK

Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)

Carlos García Adanero jauna (UPN)

Juan González Mateo jauna (UPN)

José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)

Carlos Cristóbal García jauna (SPN)

Manuel López Mazuelas jauna (SPN)

José Javier Sánchez Turrillas jauna (SPN)

Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)

Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)

José Miguel Nuin Moreno jauna (IU-EB)

Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)

Xabier Vélez Medrano jauna (Ezker A.)

Fermín Ciáurritz Gómez jauna (EA-Ask.)

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

MAHAIA

Batzordeburua

Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Ask.)

Batzordeburuordea

Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)

Idazkaria

M^a Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU-EB)

BATZORDEKIDEAK

Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)

Carlos García Adanero jauna (UPN)

Juan González Mateo jauna (UPN)

Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)

M^a Asunción Apesteguía Jaurrieta andrea (SPN)

Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)

Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)

Andrés Basterra Layana jauna (NDE)

Miguel Angel Larráyoiz Lezáun jauna (NDE)

Pedro Uriz Lanz jauna (NDE)

Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (IU-EB)

Xotero Etxandi Juanikotena jauna (Ezker A.)

Xabier Vélez Medrano jauna (Ezker A.)

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**MAHAIA**

Batzordeburua
 Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)
 Batzordeburuordea
 Carlos García Adanero jauna (UPN)
 Idazkaria
 José Miguel Nuin Moreno jauna (IU-EB)

BATZORDEKIDEAK

Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
 Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
 Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea
 Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
 Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
 Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
 Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
 Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)
 Inmaculada Matías Angulo andrea (NDE)
 M^a Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU-EB)
 Xabier Vélez Medrano jauna (Ezker A.)
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
 Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Ask.)

OSASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Batzordeburua
 Fermín Ciáurritz Gómez jauna (EA-Ask.)
 Batzordeburuordea
 D. Félix Armañanzas Echarri (UPN)
 Idazkaria
 M^a Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU-EB)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
 Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
 Juan González Mateo jauna (UPN)
 José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
 M^a Asunción Apesteguía Jaurrieta andrea (SPN)
 Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)
 José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
 Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
 Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)
 M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE))
 Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (IU-EB)
 Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
 Xabier Vélez Medrano jauna (Ezker A.)

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA**MAHAIA**

Batzordeburua
 Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Ask.)
 Batzordeburuordea
 M^a Pilar Pérez Aznar andrea (UPN)
 Idazkaria
 Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (IU-EB)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
 Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)
 Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
 Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
 M^a Asunción Apesteguía Jaurrieta andrea (SPN)
 José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
 Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
 Jesús Javier Arteaga Olleta jauna (NDE)
 M^a Reyes Cortaire Tirapu andrea (NDE)
 Pedro Uriz Lanz jauna (NDE)
 M^a Isabel Arboniés Bermejo andrea (IU-EB)
 Xotero Etxandi Juanikotena jauna (Ezker A.)
 Xabier Vélez Medrano jauna (Ezker A.)

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- 230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, deitzen den lehen Osoko Bilkuran eztabaidan jartzea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 11ko 24/1985 Foru Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, xedapen honek ematen baitio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergen Erregimen berriari Egokitzeko Akordioak ezartzen duena betearazteko behar diren arauak aldarrikatzeko ahalmena.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1997ko irailaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n izenpetu zuten Hitzarmen Ekonomikoko 27. artikuluan ezartzen da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpenari dagokionez, Nafarroak Estatu mailan uneoro indarra duten oinarrizko printzipio, arau sustantibo eta formazko berberak aplikatuko dituela.

Bertzalde, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 11ko 24/1985 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari behar diren arauak emateko, hain zuzen ere Hitzarmen Ekonomikoa zeharkako ezarketaren araubide berriari egokitzeko Akordioan ezarritakoa bete dadin. Aipatu Akordioa ulertu behar da Hitzarmen Ekonomiko berriari

lotua, izan ere horrek indarra hartzen duen unetik espreski indarrik gabe uzten baitu egokitzapen hori onesten duen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga araubide amankomunean arautzen duen Legea bidaiari garraioaren eta autopisten zerbitzuetako zerga tasari dagokionez aldatu delarik, abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean sartzen diren aldaketek araubide amankomunean burutu direnak berenganatzea dute xede. Hori dela eta, beharrezkoa egiten da, aipatu xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean aurreikusitakoari jarraikiz, Nafarroan behin-behinekotasunez indarra izanen duten arauak Foru Dekretu baten bidez ematea. Arau horiek onesten direnetik hamar eguneko epea izanen da Parlamentura igortzeko, honek behin betikoz onetsi ditzan.

Horrenbertzez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak mila bederatziehun eta lauretan hogeita hamazazpiko irailaren bostean eginiko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorri,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

1997ko irailaren 6tik aitzineko ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko artikulua hauek eduki hau izanen dute:

Lehena. 33. artikulua.

“33. artikulua. Zergaren erantzuleak

Dagokien tributu zorrari solidarioki erantzun beharko diote:

1. Karga jasaten duten eragiketen hartzaileak direnek, baldin eta beraiek egindako aitortpen edo adierazpen okerrak direla medio, behar ez baina onuradun gertatzen badira, alegia, salbuespena,

atxikipen eza edo zuzenbidearen arabera bidezko direnak baino zerga tasa txikiagoak aplikatzea bezalako kasuetan.

2. Telekomunikazio zerbitzuen hartzaileak direnek, haiei dagozkien fakturak edo horien ordezkotza agiriak onartu badituzte, haietan zerga erregelamendu bidez ezarritako moduan oihartzundurik agertzen ez denean, baldin eta emaila Europako Batasunean finkaturik ez badago.”

Bigarrena. 37. artikulua. Bat. 2.1go.

“1go. Gidaiaien eta haien ekipajeen garraioarena. Ondorio hauetarako, autopistak eta pertsonak eta haien ekipajeak motozikletaz edo autoz joan-etortzeko kontzesio araubidean dauden bidezko gainerako instalazioak erabiltzeko zerbitzuak parekatzen dira eragiketa horiekin.”

Hirugarrena. 43. artikulua.1. 2garren.

“2garren. Inportazioaren gaineko zerga ordaindu dela frogatzen duen agiria. Halaber, zerga inportatzailearen kontu ordaindu duten aduana agenteen bidez eginiko ondasun inportazioetan, beharrezkoa izanen da, gainera, agirian ager dadila aduana agenteak bere bezeroarengandik tributuen errenboltsua lortu duela dioen aitortzea.”

Xedapen Iragankorrak

Lehen. Autoekin parekatutako ibilgailuak.

Foru Dekretu honetako bigarren atalean xedaturiko ondorioetarako, 1997ko urriak 15 izan arte, bi ardatz eta lau gupil dauzkaten ibilgailu arinak joko dira autotzat.

Bigarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena, oihartzuna eta sarrera telekomunikazio enpresek eginiko eragiketetan.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea zerga horrek telekomunikazio zerbitzuetan duen sortzapen, oihartzun eta sarreari dagokionez aldatzen duen abuztuaren 29ko 14/1997 Errege Lege-Dekretuko bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan xedaturikoa izanen da aplikatzeko.

Hirugarrena. Foru Dekretu honek biltzen dituen arauak behin-behinekoak dira, Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

Xedapen Indargabetzaileak

Lehenbizikoa. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 19. artikuluko 16. zenbakia indargabetzen da.

Bigarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko zortzigarren xedapen iragankorra indargabetzen da. Zerga horregatik, bidaiari eta ekipaje garraio guztiek ehuneko 7 tribututako dute, hots, zerga tasa murriztua, 1997ko irailaren 6tik aurrera.

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---